



SINUSITISA SINUSITIS

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **SINUSITISA**.

ZER DA?

Sinusitis sinu paranasalen inflamazioa da (sudurreko arnasbideari lotuta dauden aurpegiko hezurren barrunbeak), sinuen infekzioak sorrazia, gehien bat.

NOLA IGARRI?

Normalean, katarro-koadro baten ondoren agertzen da: umeak mina dauka sudurraren goiko aldean, bekokian (sinu frontala) edo sudurraren alde batean, masailalboaren azpian (sinu maxilarra).

Mina handitu egiten da atzamarrarekin zuzenean sakatzen bada edo burua makurtzean.

Sukarra ager daiteke.

ZER EGIN?

Sinu hauek eta sudur-arnasbideak lotzen dituen zuloa txikia denez eta zaila denez barruko edukia kentzea (mukia edo zornea), inflamazioa kentzen saiatzeko tratamendua aginduko du pediatrak:

- Infekzioaren tratamendua (antibiotikoak).
- Antiinflamatorioak.
- Neurri lokalak (bero lokal, sudurra serumez garbitzea, lurrunak inhalatzea...).
- Beharbada, sukarra ere tratatu beharko da.

ZERI JARRI ARRETA?

Normalean ez da arazorik agertzen.

Begia gero eta handituago balego, betazalak handitura eta gorrituta, sukar altuarekin edo umearen egoera orokorra txarra bada, beste azterketa bat egin beharko diote hurbil dagoen osasun-zentroan.

Komenigarria da pediatrak kontrola egitea.

Sinusitisa batzuetan zaila izaten da sendatzen, eta, agian, tratamendu luzea behar da.

Su hijo por la clínica que presenta en este momento ha sido diagnosticado de **SINUSITIS**.

¿QUE ES?

La sinusitis es una inflamación de los senos paranasales (cavidades de los huesos de la cara comunicados con la vía respiratoria nasal) causado fundamentalmente por una infección de los mismos.

¿COMO RECONOCERLA?

Generalmente se presenta tras un cuadro catarral con dolor en la zona superior de la nariz en la frente (seno frontal) o a un lado de la nariz debajo del pómulo (seno maxilar).

El dolor aumenta a la presión directa con el dedo o al agachar la cabeza.

Puede presentar fiebre.

¿QUE HACER?

Dado que el orificio que comunica estos senos con las vías respiratorias nasales es pequeño y la eliminación del contenido (moco o pus) esta dificultado, el pediatra le recomendará un tratamiento para intentar eliminar la inflamación mediante:

- Tratamiento de la infección (antibióticos).
- Antinflamatorios.
- Medidas locales (calor local, limpieza nasal con suero, inhalación de vapores...).
- Puede precisar tratamiento para la fiebre.

¿QUE VIGILAR?

Habitualmente no presenta problemas.

Si presentara hinchazón progresiva del ojo, con inflamación y enrojecimiento de los párpados, fiebre alta o mal estado general deberá ser valorado nuevamente en el centro de salud más cercano.

Recomendamos control por su pediatra.

La sinusitis a veces es difícil de curar y puede necesitar tratamiento prolongado.